


EAEko industria-jarduera % 2,5 jaitsi zen 2020ko urtarrilean

Aurreko hilabetearen aldean (2019ko abendua), industria-produkzioaren indizeak ez du aldaketarik izan (% 0,0)

Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa % 2,5 jaitsi zen 2020ko urtarrilean 2019ko hilabete berarekin alderatuta, lan-egutegiaren termino homogeneoetan, Eustatek landutako datuen arabera.

Aurreko hilabetearen aldean (2019ko abendua), Euskal Autonomia Erkidegoko industria-produkzioa ez da aldatu (% 0,0), urtaroko eraginak zuzendu ondoren.

Euskal AEko industri produkzioaren indizearen urte-arte aldakuntza-tasa (%)



Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

2020ko urtarrileko indizeak, 2019ko urtarrilekoarekin alderatuta, bestelako bilakaera izan du industria-sektore handien artean: *energia* % 7,3 igo da, eta *kontsumo-ondasunak*, osorik hartuta, % 4,1. Horien barruan, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 5,0 igo dira, eta *kontsumo-ondasun iraunkorrak*, berriz, % 0,6. Alderantziz, *bitarteko ondasunak* % 6,2 jaitsi dira, eta *ekipamendu-ondasunak* % 3,3.

2020ko urtarrilean, 2019ko abenduaren aldean, hiletik hilerako aldakuntzak bilakaera positiboak izan ditu industria-sektore handi gehienetan: *ekipamendu-ondasunak* % 3,5 igo dira, *energia* % 2,9, eta *kontsumo-ondasunak*, osorik hartuta, % 2,8 egin dute gora. Izan ere, *kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak* % 3,3 igo dira, eta *kontsumo-ondasun iraunkorrak*, berriz, % 0,7. *Bitarteko ondasunak*, ordea, % 1,5 jaitsi dira.

Euskal industrian pisu handiena duten sektoreen artean, 2020ko urtarrilean, urtetik urterako aldakuntzetan honako hauek izan dituzte hazkunde handienak: *energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 9,0ko igoera) eta *elikagaien, edarien eta tabakoaren industriak* (% 3,9ko gorakada). Aitzitik, jaitsiera handienak *garraio-materialaren* sektorean izan dira, urtetik urtera % 9,5 egin baitu atzera. Sektore hauetan ere jaitsiera izan da: *metalurgia eta metalezko produktuak* (% 7,3) eta *zura, papera eta arte grafikoak* (% 4,2).

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Sektore nagusiak. Urte arteko hazkunde-tasak. A-38 sektorizazioa. Behin-behineko datuak

	m / m-12
A38 SEKTORIZAZIOA	
SEKTORE NAGUSIAK⁽¹⁾	
10 - Metalurgia eta produktu metalikoak	-7,3
16 - Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	9,0
09 - Kautxua eta plastikoak	-2,4
13 - Makineria eta tresneria	-1,5
14 - Garraio-materiala	-9,5
03 - Elikaduraren, edarien eta tabakoen industriak	3,9
12 - Material eta tresneria elektrikoa	0,1
05 - Zurgintza, papera eta arte grafikoak	-4,2

Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

(1) Industrian pisurik handiena duten sektoreak

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Lurralde historikoaren arabera, industria-produkzioaren indizearen urtarrileko urtetik urterako bilakaerak zeinu negatiboa du hiru lurraldeetan. Araban % 3,6ko jaitsiera izan da, Gipuzkoan % 3,0koa, eta Bizkaian, berriz, % 1,3 egin du behera indizeak.

Euskal AEko Industria-produkzioaren indizea. Hazkunde-tasak. Behin-behineko datuak. 2020ko Urtarrila

	Egutegiaren eragina zuzendutako datuak		Datu desestazionalizatuak	
	Urt2020 / Urt2019	A(Urt2020) / A(Urt2019)(*)	Urt2020 / Abe2019	Abe2019 / Aza2019
Indize orokorra				
Euskal AE	-2,5	-2,5	0,0	-2,1
Araba/Álava	-3,6	-3,6	0,4	-3,2
Bizkaia	-1,3	-1,3	0,0	-1,7
Gipuzkoa	-3,0	-3,0	-0,3	-1,8
ONDASUNEN HELBURU EKONOMIKOAREN ARABERAKO INDIZEAK				
Kontsumo-ondasunak	4,1	4,1	2,8	-1,7
Kontsumo-ondasun iraunkorrak	0,6	0,6	0,7	-4,2
Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	5,0	5,0	3,3	-1,1
Ekipo-ondasunak	-3,3	-3,3	3,5	-6,3
Bitarteko ondasunak	-6,2	-6,2	-1,5	-1,0
Energia	7,3	7,3	2,9	2,1

(*) 2020ko urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, 2019eko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Industria-produkzioaren indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62